ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko abenduaren 12a, asteazkena • 143 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Aldi baterako ondoko lan-poltsan izateko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Orokorreko Eskala, Azpieskala Teknikoa eta erdi mailako teknikarien taldea, Langileen Arloko erdi mailako teknikaria

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak 33.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bitarteko funtzionarioak aurkezteko, publikotasun-,berdintasun-, merezimendu-, eta gaitasun-printzipioak hartu behar dira kontuan, eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatu behar da.

Azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan-poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena (abenduaren 2ko ALHAO); aldi baterako lan-poltsak, beste batzuen artean, funtzio publikoan sartzeko deialdien bidez (enplegu publikoaren eskaintza), behin langileak hautatuta daudenean. Horretarako, langileak hautatzeko sistema horretako oinarrietan berariaz adierazi beharko da horren funtzio bakoitza (lanpostu hutsak betetzea eta aldi baterako lan-poltsa sortzea).

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 29ko 814/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinean jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko enplegu publikoaren eskaintzaren oinarri orokor arautzaileak onartzen dituena, eta ekainaren 1eko 111/2017 Foru Agindua aldatu zuena. Oinarri Orokorren 14. puntuan zehazki adierazten da aldi baterako behar diren lanpostuak betetzeko lan-poltsetan sartuko direla oposizio faseko lehen ariketa gainditzen duten hautagaiak, eta gainditu ez dutenek oposizio faseko lehenengo ariketako bigarren proba gainditzen badute, eta hautatuen behin betiko zerrendan ez badaude.

Behin Langileen Arloko erdi mailako teknikoak hautatzeko behar den prozedura amaituta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz hasiko du lan-poltsak osatzeko prozedura, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.2 artikuluak xedatutakoaren arabera. Horretarako, lan-poltsa bakoitzean sartzeko eskubidea dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, bere enplegu publikoaren atarian https://www.araba.eus/IFBS/PORTALEMPLEO/ eta ALHAOn.

Aurretiaz adierazitakoa kontuan izanda, eta baita apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikuluak aurreikusitakoaren arabera ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duena, eta ekainaren 20ko 21/1988 Foru Aginduaren 7. artikuluarekin erlazionatuta dagoena, zeinaren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoa sortu zen, GOFEren kudeaketako zuzendaritza.

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Argitaratzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian https://www.araba.eus/IFBS/PORTALEMPLEO/ eta ALHAOn aldi baterako ondoko lan-poltsan izateko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Orokorreko Eskala, Azpieskala Teknikoa eta erdi mailako teknikarien taldea, Langileen Arloko erdi mailako teknikaria; ebazpen horren I. Eranskinean dago.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bigarrena. Argitalpen horren bidez, behin-behineko zerrendan ageri diren pertsonei beren eskubidea jakinarazita geratzen zaie.

Hirugarrena. GOFEko behin-behineko lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonek aurkeztu ahal dituzten agirien zerrenda argitaratzea, zeina ebazpen horren II. Eranskinean dagoen.

Laugarrena. Argitaratzea honako eredu normalizatuak:

— Datuen irisgarritasuna baimentzen ez duen inprimakia, ebazpen horren III. Eranskinean adierazten dena.

— Arauzko eskabide-orria GOFEko lan-poltsan parte hartzeko lehentasunak aldatzea izan dezaten, aldi baterako zerbitzuak emateko, ebazpen horren IV. Eranskinean adierazten dena.

— Funtzio publikoetarako desgaituta ez egotea, edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplinako espediente bidez baztertua ez egotea, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Administrazio Publikoetarako zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasunekoa denak, aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta, ebazpen horren V. Eranskinean adierazten dena.

Bosgarrena. Zazpi egun balioduneko epea irekiko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian argitaratu https://www.araba.eus/IFBS/PORTALEMPLEO/ eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita zerrendan dauden pertsonek II. Eranskinean adierazten diren agiriak eman ditzaten, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren lan-poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onartzen duena (abenduaren 2ko ALHAO). Aurretiaz adierazitako epe berean, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzan, argitaratu den behin-behineko zerrendaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 4a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ LUIS ALONSO QUILCHANO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. Eranskina

Aldi baterako ondoko lan-poltsan izateko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Orokorreko Eskala, Azpieskala Teknikoa eta erdi mailako teknikarien taldea, Langileen Arloko erdi mailako teknikaria.

NAN
14.259.730
14.602.603
30.652.338
30.658.075
44.670.656
44.670.870
44.685.137
72.727.820
72.744.421
72.751.394
72.833.004

II. Eranskina

GOFEko behin-behineko lan-poltsetan sartzeko eskubidea duten eta behin-behineko zerrendan dauden pertsonek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) NANaren fotokopia konpultsatua.

b) Atzerriko izangaiek Administrazioaren jakinarazpen bat jasoko dute eta bertan adieraziko zaie zein dokumentu ekarri behar dituzten nahitaez, beren egoera kontuan hartuta. c) Inprimakia behar bezala sinatuta, datuen irisgarritasuna baimentzen ez duen inprimakia, ebazpen horren III. Eranskinean adierazten dena. Derrigorrean aurkeztu eta sinatu beharko da agiri hori, eta ez aurkezteak ez du uste izango eragin bera duenik.

d) Eskaera arautua GOFEko lan-poltsan parte hartzeko lehentasunak aldatzea izan dezaten, aldi baterako zerbitzuak emateko, ebazpen horren IV. Eranskinean adierazten dena.

e) Funtzio publikoetarako desgaituta ez egotea, edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplinako espediente bidez baztertua ez egotea, abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Administrazio Publikoetarako zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateraezintasunekoa denak, aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta, ebazpen horren V. Eranskinean adierazten dena.

f) Espainiako herritartasuna ez duten izangaiek, bestalde, egiaztatu beharko dute ez dutela beren gain norberaren estatuko funtzio publikoan jardutea galarazten dien diziplinazko zigorrik edo zigor penalik.

Medikuaren agiria- inprimaki ofizialean-, ziurtatzen duena ez daukala gaixotasun edo akats fisikorik dagozkion egitekoak betetzea galarazten dionik.

h) Izangai ezinduek, gainera, eskatzen dituzten lanpostuetako egitekoak betetzeko gai direla ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Enpresako Mediku Zerbitzuak egina.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

III. Eranskina

DATUEN IRISGARRITASUNA BAIMENTZEN EZ DUEN INPRIMAKIA

Jn./And.: …….....…….……

NAN: …….....…..……

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, EZ DUT BAIMENIK EMANGO Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak honako datu hauek kontsultatu ditzan:

□ Titulazioa.

□ Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.

Hautapen prozedura horretan apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua ezartzen da, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena.

□ Ez daukat egiaztatuta hizkuntza eskakizuna, baina apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan adierazitako baldintzak betetzen ditut eta egiaztatzeko dagokidan ziurtagiria ekarriko dut.

Vitoria-Gasteiz, 201..... (e) ko .....(a) ren .....a

Sinadura:

— .....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

IV. Eranskina

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN ALDI BATERAKO ENPLEGURAKO LAN-POLTSETAN PARTE-HARTZEKO LEHENTASUNAK ADIERAZTEKO ARAUZKO ESKABIDE-ORRIA

ALDI BATERAKO LAN-POLTSA: .....

PERTSONAREN DATUAK:			
Lehenengo abizena		Bigarren abizena	Izena
NANa	Udalerria	Kalea: Zk: Solairua:	
Posta kodea	Lurraldea-probintzia		Harremanetarako telefonoa(k)

PARTE-HARTZEKO LEHENTASUNAK:

Lantokia dagoeneko eskualdea: (Markatu X batez nahi dituzun aukerak).

☐ Lautada (A)

☐ Aiara (B)

☐ Errioxa (C)

Lanaldi-mota: (aukera bakarra markatu):

☐ Edozein lanaldi mota (A)

☐ Lanaldi osoaren ehuneko 75 baino lanaldi laburragoak (B)

☐ Lanaldi osoaren ehuneko 50 baino lanaldi laburragoak (C)

☐ Lanaldi osoa (ehuneko 100) baino ez (D)

.....n, ...(e) ko .....aren .....(e)(a) n

Sinadura:

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN LANGILERIA ARLOKO ZUZENDARIORDETZA TEKNIKOA

Alaba Jeneralaren Kalea, 10-4solairua,1-2 bulegoak.01005 Vitoria-Gasteiz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

V. Eranskina

Sinatzen duenak, hau da, …....…….. jaun/ andreak, adin nagusikoa (NANa……..), Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren lan-poltsak (aldi baterako zerbitzuak emateko) kudeatzeko arautegia moldatzen duen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.2.d) artikuluan, adierazitako ondorioetarako:

Zinpean adierazten du

(Ezabatu egokia ez dena).

Hitz ematen dut

Funtzio publikoetarako desgaituta ez egotea, edozein Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplinako espediente bidez baztertua ez egotea, eta ez abenduaren 26ko 53/1984 Legean Herri Administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasunerako lege arrazoietan sartuta ere.

.....n, ...(e) ko .....aren .....(e)(a) n

Sinadura,.....

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.12.12 06:28:10 Z